

Antxiñako fotografixia

San Migel Txikixak aitzakixatzat hartuta

Zergatik ospaketan ete dira **jaixak Kale Zaharrian** maiatzaren lehenengo astian San Migelen izenian? Ba, emuten dauenez eta santuari dagokixonez, Zazpibidetatik (Txaketueneko bidekurtzetik) behera datorren Kale Zaharreko hasierako zatixa **San Migel auzua** zalako garai batian. Lehenengo kantueraiño tartia zan, nunbait, gaur egungo **Ona** tabernaraiño aillegaitten dana; baiña ezkereskumako kaliak be (oraingo San Anton kalia eta Madina kaliaren pareko parte paralelua) auzo horretan sartuko ziran. Izena, seguru asko, inguruan eguen San Migel eliza-parrokixiaren eragiñez jarritakua izango zan.

Eta **zergatik maiatzian**, agorrian (iraillian) beste San Migel-jai batzuk egonda? Agorrekuak, aspalditik, herri guztiko jaixak dira hemen Errosarixokuekin batera, San Migel Oñatiko patroia dalako. Baiña eliziaren **liturgixan bi San Migel-egun** agerketan dira: agorraren 29kua eta maiatzaren 7kua. Lehe-

nenguak zeruko aingeruen jeneralaren nagusittasuna akordau eragitten dosku; bigarrenak, ostera, goiangeru famau horrek gure munduan eginddako agerraldi-apariziñuetako bat dakarkigu gogora: Italiako hego-sortaldian daguen **Gargano mendixan**, Adriatiko itsasotik eta Manfredonia herrittik hurrian, V. gizaldixan gertatu ei zana. Oñatiko parrokixako altara nagusiko erretabluaren behekaldean konttaiten da irudittan historixa hori. Kale Zaharreko San Migel Txikixak, garbi dago, agerraldi horren izenian-edo egitten dira.

Dana dala, **Kale Zahar kontzeptua**, mendietan zihar, **zabalduez eta luzetuaz fan izan da** Oñatin. Gaurko fotografixa honetan bertan agerketan xakuna erdittik beherako kale-pusketan dago. Hona ekarri dotsuet, alderdi askotatik begiratuta, interesgarrixa dalako. Izan be, Korpus egunian ataratako argazki honek Kale Zaharraren ikuspegi oso desbardiña erakusten dosku:

- Ezker aldeko etxien itxuria asko aldatu da: lehenengua, erdizka agiri dana, **Ortizenero arotzerixia** zan, orain **Kale Zaharra** gastronomia-alkartia daguen lokalian; bigarrenian, balkoiduna, **San Migel kontsumo-kooperatibia** jaso zan 1926xan; hurrengua be, miradoria dakona, bota eta etxe barrixa eraiki euen **kurtiderixako Arrazolatarrak** 1946xan; eta kantue aldeko bi be eretsi egin ziran, **Largona** eta beste bat, etxe barri bakarra egin eta Lizaur kalia zabalketako 1950eko hamarkadiaren akaberan.

- Eskumako aldean eztira aldaketak hainbeste nabarmenketan, baiña badira batzuk: lehenengua, hiru balkoi eukana eta **Markesaren etxia** esaten xakona, 1967-1968xan bota zan bere aldamenekuarekin batera, euren orubeian etxebizitza pillatxoa jasoteko; hurrengiak eztittugu ondo ikusten, baiña **behekaldeko ixa etxe-illara gehixena ordezkatu** egin zan 1960ko hamarkadatik aurrera: adibidez, **Txikiñeko** kale-baserrixa bere ate haundixarekin; **Lola Elortza** bizi zan etxia eta ondoko errenteruarena, **Azkonitzarena**; eta **Paikorena** nahiz **Erlenero** bixak, Kanpantxoko iturrir aldera.

Argazkixa Markesaren etxeko lehenengo balkoitik **Solanotarren** batek atarako eben, hau da, han bizi zan familixako norbaittek. Emun dittugun datuak kontuan izanda, fotografixa XX. gizaldiko bigarren hamarkadakua-edo izan leike.

J. E.

Argazkixa Oñatiko Udal Artxibuan gordeten da eta Izar Salaberri artxibozaiñaren bidez eskuratu dogu. Eskerrik asko.

